

IZARO

Izaro Andres Zelaieta 1993ko abenduaren 31an sortu zen Mallabian, Bizkaian. Izaro kantaria da. Ikastera Donostiara joan zen. AEBko Kalifornian zegoela erabaki zuen musikaria izan nahi zuela.

2014an hasi zen tabernetan abesten. Oriol Flores bateria jotzailea ezagutu zuenean talde bat eratzea erabaki zuten. 2016an Om diskoa plazaratu zuen. Izarok berak sortu zituen hitz guztiak eta musika. Abesti gehienak euskaraz dira, baina gaztelaniaz eta ingelesez ere kantatzen du. 2017an hainbat kolaborazio ere egin zituen, hala Korrikaren 20. edizioko Zirkorrika abestian, nola Gatibu taldearen Aske maitte bideoklipetan ere. Gaztea Irratian ere kolaboratzen hasi zen.

2020ko Gaztea Sarietan bi sari eskuratu zituen. Libre abestia urteko kanturik onena izendatu zuten, "Invierno a la vista" abestiaren bideoklipari esker, berriz, bideoklip onenaren saria irabazi zuen.

Disko hauek atera zituen: Om, Hankapuntetan I, Eason eta Limones en Invierno.

Kanta ospetsuak: Libre, Koilarak, Errefuxiatuena, Hainbeste...

Kanta:Errefuxiatuena(Izaro)

<https://www.youtube.com/watch?v=I6m80P-Redg>

Utzidazu kontatzen ze ederra den itzultzea

Utzidazu kontatzen malko urdinen artean

Utzidazu kontatzen ze ederra den jakitea

Maiteko zaitudala itsasoaren beste aldean

Utzidazu kontatzen izarren artean

Utzidazu laztantzen hiru akorde hauetan

Utzidazu kontatzen ze ederra den zu ikustea

Utzidazu kontatzen

Ze ederra izango den itzulera

Elkarren besoen zabalera

Zure fede guztiei eustea

Zure bi malkoak baretzea

Utzidazu kontatzen behin ume zirela

Amestu zutela itsasoaren beste aldeaz

Hegan egiteko hegoak

Bakean bizitzeko

Ez dute besterik nahi

Gaur gurekin dantzatzeko

Ze ederra izango den itzulera

Elkarren besoen zabalera

Zure fede guztiei eustea

Zure bi malkoak baretzea

Ze ederra izango den itzulera

Elkarren besoen zabalera

Zure fede guztiei eustea

Zure bi malkoak baretzea

Egileak: Olaia Otxandorena eta Xabat Maritxalar